OINARRIZKO EUSKARAZKO ALDIZKARIA

# aizu!

200 pzta.

1982

5 eta 6 zkak.



(327. orrialdea)

OINARRIZKO EUSKARAZ



# MIKEL LABOAREKIN ENTREBISTA



Riing Riiiiinnggg!!

- Zein da?
Aizu- Mikel etxean dago?
- Bai, itxoin[1] pixka bat
Mikel- Bai?

Aizu- Aizu, Mikel! Aizu! aldizkarikoak gara; elkarrizketa bat egin nahi dizugu. Zer iruditzen zaizu?

Mikel- beno, ba ni ... ba dakizue ...nik ez dakit zer esan ... ba ... nik ez ... Zergatik ez diozue beste norbaiti egiten? Xabier Leteri edo? ... Nik ez dut abesten jadanik ...
Aizu- Bai, baina guk zuri egin nahi dizugu.
Mikel- Beno, ba ... ez dakit zer esan ... Halere, nik egin nuen beste elkarrizketa batetako zinta batzuk ditut; nahi badazue utziko dizkizuet ... eta entzun eta gero itzuli[2] egiten dizkidazue ...
Aizu- Emmm ... Beno, oso ondo.

*

Esan eta egin, Mikelek zinta zoragarri batzuk zi zizkigun-azpian hitz egiten ari den gaiaren usika tarteka[3] entzuten dugularik[4]-Ondoren ** ientzako, zati interesgarrienak idatziko ditugu:

* Herri irratia 1978
** MIKEL LABOA (1934-2008) DVD, ELKAR 2009 (zintaren zatiak)